

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2010eko azaroaren 5a. VIII. urtea. 2.118. zenbakia. www.tolosaldekohitza.info

Iker Goenaga EHTEko zuzendaritza taldeko kidea

«Mundu mailan Basque Country gure trikitixarekin identifikatzen dute»

Azken bi urtetan Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko zuzendaritzan dabil lanean trikitilari zizurkildarra besteak beste Nazioarteko Trikitixa Jaialdia antolatzen

Jaialdia gaur izango da Tolosako Leidor aretoan 22:00etatik aurrera; nazioarteko zein Euskal Herriko musikariak izango dira taula gainean **o3**



Euskaratzen duen bigarren liburua kaleratu berri dute, 'Fahrenheit 451' izenekoa. I. GOROSTARZU

Nagore Tolosa Itzultzailea

«Gaurkotasunik ez dute galdu nobelan lantzen diren gaiek»

Berastegiarrak Ray Bradburyren 'Fahrenheit 451' lana euskaratu du; 'Bai mundu berria' edo '1984' lanekin alderatu daiteken nobela da **o4**

Astelehenetik aurrera gimnasio berria izango dute herritarrek

Alegiako haurreskola egiterakoan lekuz aldatu zuten; beirate handi bat jarri diote **o6**

Iristear da Martina Sorgina San Martin jaiak iragartzeko

Asteartean 20:00etan hasiko dira Amasako festak; San Martin egunean herri kirolak izango dira protagonistak **o5**

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

Maitte

Leitza kalea z/g • Tolosa • 943 67 09 30

Diodo laserra

Behin betiko depilazioa

Salneurriak eskatu

Bonu bereziak
gizonezko zein emakumezkoentzat
eta
tarifa bereziak gazteentzat



Tolosaldea

→ **Laburrak**

Merkatu Txikia Nikaraguari elkartasuna adierazteko

TOLOSA › Amaroško Auzo Elkarreka, Nikaraguari elkartasuna adierazteko Merkatu Txikia antolatuko du. Amaroško lokal sozialetan hilean behin irekitzea aurreikusiko dute. Horrela, hilabete honetan, hilaren 8tik 12ra egongo da zabalik 16:00etatik 19:00ak bitarte. Abenduan berri, 13tik 17ra (biak barne) izango da ordutegi berarekin. Tolosarrei dei egiten diete ekimen honi laguntza emateko.

Escola kirola baliabide hezitzaile gisa

TOLOSA › Samaniego ikastetxean escola kirolaren inguruko hitzaldia antolatuko dute. Asteazkenean, hilaren 10ean, 17:30etik 18:30era izango da. Gurasoentzat eta kirol begiraleentzat izango da eta HHko eskolako erabilera anitzeko gelan emango dute. Hizlaria Luix Mari Zulai-ka EHUko irakaslea izango da eta euskaraz emango ditu azalpenak. Materiala elebitan banatuko da. Jorratuko diren gaien artean, txapeliduna ez izatearen eskubidea, kirola eta ikasketak: oztopo edo laguntzaile?, nola hobetu nire seme-alaben autoestimua, kirola egiteko arrazoiak... egongo dira.

'Ate joka' antzerkia 21:00etan Kiroldegian

IKAZTEGIETA › Udazken kulturari hasiera emateko, *Ate joka* antzerkia ikusteko aukera izango dute herritarrek. Kiroldegiko gimnasioan egingo dute eta 21:00etan hasiko da. Umorez beteko antzerkia hau Sara Cozar, Iker Galartza eta Joseba Usabiaga aktore ezagunak antzeztuko dute.



Pasa den urtean bezala, aurten ere Azoka Berezia egingo dute etzi. HITZA

Kulturaz elikatzeko

Bihar ekingo diete Kultur Asteari; etzi Azoka Berezia egingo dute eta Jubilatuen Eguna izango da

Erredakzioa Gaztelu

Etxean geratzeko baino, kalera edo plazara irten, eta gozatzeko moduko egunak datoz gazteluarrentzat. Izan ere, bihar hasi eta osteguna bitarte, Kultur Astea izango dute herrian, eta guztiei zuzenduriko hamaika ekitaldi antolatuko dituzte.

Asteburu honetan, bihar eta etzi izango dira egun nagusiak, hau da, ekitaldi gehien hartuko dituztenak. Bihar, esaterako, arratsaldean gaztetxoak eskula-

nak egiten ariko dira, eta iluntzean film bat ikusteko aukera izango da. Gauean, berri, afarian bilduko dira herritarrek.

Azoka Berezia izango da etzi, baserriarren produktuak ikusi eta erosi ahaliko direlarik. Aldi berean, Jubilatuen Eguna ere izango da, eta guztiak bazkarian bilduko dira. Trikiti doinuak eta bertsolariak ere izango dituzte bazkalostean.

Datorren ostegunean amaituko da Kultur Astea. Gaztetxoak Kirol eta Kultur elkartearen bilduko dira arratsaldean. Lehendabizi askaria hartuko dute, eta ondoren, Idoia Sanchezen ipuinak entzungo dituzte.

Belarriak ondo zaintzeko

Bestalde, Uli Mankomunitateak antolatuko du Kutzako ikasgelak sustaturik osasunari buruzko jardunaldia izango da Gaztelun. Datorren astelehenean, hilaren 8an izango da, 18:30ean herriko eskolan. Hain zuzen ere, belarrien zaintzetaz gehiago jakiteko aukera izango dute herritarrek. tolosa@hitza.info

↓ **Egitaraua**

AZAROAK 6, LARUNBATA

- **17:00.** Eskulan tailerrak haurerentzat, eskolan.
- **19:30.** *Euskal artzaiak Amerikan* filma ikusgai, eskolan.
- **Ondoren.** Afaria Erroizpe Azpiko kirol eta kultur elkartearen.

AZAROAK 7, IGANDEA

- **11:00.** Bertako baserrietako produktu eta artisautza azokaren hasiera.
- **11:00.** Meza nagusia.
- **13:00.** Jubilatuen bazkaria.
- **Ondoren.** Trikitilariak (Leire eta Mirari berrobitarrak) eta bertsolariak, Erroizpe Azpiko kirol eta kultur elkartearen.

AZAROAK 11, OSTEGUNA

- **17:00.** Askaria Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur elkartearen.
- **Ondoren.** Idoia Sanchez ipuin kontalariaren saioa, Kirol eta Kultur elkartearen.

Gutunak

AHTren egoera Tolosaldean

Gutxienekoa ere ez dute betetzen. Urriaren 26an ireki zen Tolosa-Hernialdeko zatiaren alegazioak aurkezteko epea eta herritarrek oraindik Abiadura Handiko Trenaren Proiektu Konstruktiborik gabe, hau da, informaziorik gabe.

Azken datuak 2009ko otsaillean jaso ziren eta, aldatzeko epea egon direla jakin arren, (2009ko uztaillean Proiektu Basiko berria), ez zuten informaziorik pasatzen. Urtebetera, hor non agertzen den komunikabideetan Tolosa-Hernialde zatia lizitazioetan zegoela, argi geratuz, Proiektu Basikoaz gain Proiektu Konstruktiboa ere bazutela.

Horrela gaude orain, zer alegatu ez dakigula, ez baitakigu, adibidez, zer etxe botako luketen. Proiektu Konstruktiboa kaleratu berri da eta berandu da behar den bezala aztertzeke.

Lizitazioetan zati honen aurrekontua 112.479.065,22 eurokoa zen, imaginatu ezin daitekeen zifra bat. Gizarteak bizi duen egoera ikusirik, zifra hauekin gauza asko hobetu genitzake.

Honekin batera, lurak eta etxebizitzak ere kenduko lizikugukete. Ez dute argi uzten, baina badirudi, hiru etxe izango lirakeela botatzekoak eta gutzira 50 lurjabe, tartean lur publikoak. Hau gutzira gutxi balitz, Tolosako zatia dugu bestetik hipzide. Lanak gauzatzen ari diren zatiko lurak, Alegiako Eguzkitzako zabortegira ari dira eramaten eta informatu digutena arabera, zabortegiak lizentzia batzuk falta ditu. Behin eta berri ari gara egoera salatzen, baina ez dute kasurik egiten. Zabortegia itxi beharko lukete eta honek esan nahi du, hasiak dauden lanak bertan behar uztea.

Nahi dutena egiten uzten badiegu, martxa honetan, gu jango gaituzte. Denok bateratuz, geldi dezakegu!

■ **Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlana.**

ZUREKIN EDONORA eta parte hartu zozketan!

Erosketak egiterakoan poltsa berrerabilgarriak erabili. Gogoan izan erosketa egitean plastikozko poltsarik ez duzula hartu behar.

ZOKZETAK: Azaroaren 15ean eta abenduaren 15ean.

SARIA: Zozketa bakoitzean, afari bat Tolosaldeko jatetxe batean, bi pertsonentzat.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

343 670 249

TOLOSako UDALA

IRAGARKIA

2010ko urriaren 26an izandako Osoko Bilkuran, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin 2011. urteko urtarrilaren 1etik aurrerera Ordenantza Fiskalak eta eranskinak aldatzea erabaki zuten. Hartutako akordioak Udaltzeko iragarki taulan ageri dira 30 egun abiletan zehar, iragarki hau G.A.O. agertu eta hurrengo egun abiletik hasita. Epe honetan, 11/1989 Arau Foralak 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunek espedienteak aztertu ahal izango dute eta egokitzat jo ditzaten erreklamazioak aurkeztu.

Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamazioak edo oharrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik behar.

Tolosan, 2010ko urriak 27an
ALKATEA

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iker Goenaga ◉
EHTEko zuzendaritza taldeko kidea

Nazioarteko Trikitixa Jaialdia gaur izango da Leidorren, 22:00etan; sarrerak 21:00etatik aurrera jarriko dituzte salgai leihatilan.

«Jaialdiaren helburua kanpoko soinu-joleak ezagutaraztea da»

Asier Imaz

Zizurkildarra izan arren, azken zortzi urteak Alkizan daramatza Iker Goenagak (Zizurkil, 1974). Soinujole bezala berriz, «urte dezentze» daramatza trikitixa astintzen. Hasiera batean Larraitz Goenaga arrebarekin hasi zen; beranduago, bakarkako bideari ekin zion eta azkenaldian, ohol-tzara taldekidez inguraturik igotzen da zizurkildarra.

Bestalde, azken bi urteetan, Euskal Herriko Trikitilari Elkarte-ko zuzendaritzan dabil lanean, besteak beste, gaurko Nazioarteko Trikitixa Jaialdia antolatzen. **Bederatzi garren edizioa Donostiatik at egitea erabaki duzue, baina ohiko formatua mantenduz.**

Nazioarteko Jaialdi honen helburua, kanpoko soinu-joleak ekartzea eta ezagutaraztea da. Hori beti garbi eduki du Trikitixa Elkarteak. Soinu-txikia ez da Euskal Herriko instrumentu bat bakarrik, mundu osoan hedatuta dagoena baizik. Ondorioz, instrumentu honekin munduan zehar zer egiten den erakustea izan da beti helburu nagusia.

Aurreko zortzi edizioetan, Do-

nostian antolatu dugu Jaialdia: seitan Kursaallean eta beste pare batetan Victoria Eugenia antzokian. Aurten berriz, Tolosara ekartzea erabaki genuen. Urte asko pasatu ditu Donostian eta pixka bat, aurten, Gipuzkoan berratu nahi genuen. Gure apustu pertsonal bat izan da, eta egia esan, gustura gaude Tolosako Udalaren jarrera eta laguntzeko prestutasunarekin. Gaur ikusiko dugu zer gertatzen den, baina bai kor eta emaitza onak lortzeko esperantzan gaude.

Lehiaketa bat ez dela ere argi utzi behar da, ezta?

Ez da lehiaketa bat, ez. Lehen esan bezala, helburua batez ere, kanpoko soinu-joleak hemen ezagutaraztea da. Eurentzat ere esperientzia polita da, hona etorri eta bertako soinu-joleak ikusten baitituzte. Elkarren teknika nolakoa den gertutik ezagutzeko aukera bat da. Aurten adibidez, Britainiako talde bat dator, Imosima. Britainiako dantza tradizionala abiatuta, beraien kantu propioak sortzen dituzte. Kontrabaxua, gitarra eta soinuarekin halako hirukoteko berezi bat egiten dute. Soinu-joleak,



REBEKA CALVO

Audrey-k, jotzeko oso modu berezia dauka, gurearekin zerikusirik ez duena. Helburua hori da, topagune bat izatea; elkarren berri izateko eta munduko gauza ezberdinak entzuteko.

Jaialdiaren etorriko diren taldeak nola aukeratu dituzte?

Iritzide asko daude; baina bat ez errepikatzearena da. Talderen batek agian errepikatuko du, batez ere Euskal Herrikoen batek, baina saiatzen gara aldatzen. Jende berria ekartzea da helburua, bere soinuarekin gauza ezberdinak espresatzen dituen.

Gaur Leidorren asetzen ez denak, jarraipena bihar izango du, Getxon.

Lehen bi urtetan ez zen horrela izan, baina ondorengo sei tan bai. Bere logika dauka gainera, izan ere, Kaliforniatik edo Quebec-etik talderen bat ekartzen duzunean, interesgarria da kontzertu bat baino gehiago emateko aukera. Emanaldian sei talde daude

eta bakoitzak hamabost minutu inguruko saioa egingo du. Behin horren urrutetik ekarrita, aukera ona iruditzen zaigu pare bat lekutan bi emanaldi egitea.

EHTEko zuzendaritzan, Jaialdiari begira, zein da zure lana?

Nazioarteko lantaldean egon naiz hasieratik. Poz-pezik nago gainera, nahi nituen musikari batzuk etorriko baitira. Lantalde finko bat daukagu eta Jaialdia baino ia urtebete lehenago elkar-tzen gara. Izenak bilatzen, ideiak botatzen eta taldeekin harremanetan jartzen hasten gara. Gure kasuan, batez ere musikarien aukeraketan egiten dugu lan.

Kanpotik datorrenak ezagutzen al du hemengo errealitatea?

Soinu diatonikoen munduan Euskal Herria erreferente handi bat da. Hemen bertan agian ez gara oso kontziente, baina mundu mailan Basque Country esaten baduzu, folk jaialdiak eta, soinu diatonikoa, gure trikitixa, oso ondo identifikatzen dute. Gero Internet bidez ere harremanak egiten dituzu eta kanpoko ezagutzen duzun bezala, eurek bertakoa ezagutzen dute. Horrela harremana sortzen da eta hona gonbidatzen dituzu, Imosimarekin niri hori gertatu zait behizat. ◉ aimaz@hitza.info

EUSKAL HERRIKO PLAZA KO HAINBAT EKOIZLEREN
PRODUKTUEKIN OSATUTAKO **SASKIAK**

36€

55€

www.euskalherria.com

PLAZA

Erosi berriaren GABONETAKO ESKAINTZAN EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

azaroaren 30a arte!

943 30 43 45
harpideta@berria.info
Bidalaketa gastuak doan

Osatu zure saskia!

berria

zu zara berria

euskarazko komunikabideak, elkarlanean, berri-ta, mugimenduan

hitza info

berria info

Gure produktuak gertutik ezagutu nahi badituzu edo harpidetu nahi baduzu:

www.zuzaraberria.info

berriketan@berria.info

Nagore Tolosa Itzultzailea

Ray Bradburyren 'Fahrenheit 451' lana gurerara ekari du berastegiarrak. Euskaratu duen bigarren liburua da

«Euskal idazleen eta itzultzaileen arteko elkarlana beharrezkoa da»

Ione Gorostazu Berastegi

Ray Bradburyren 'Fahrenheit 451' da Nagore Tolosak (Berastegi, 1982) euskaratu duen liburua; klasiko bat izan arren, gaurkotatunik galdu ez duten gaiak jorratzen ditu. Bere lanerako ezinbestekotzat jotzen du, ohiko tresna elektronikoez gain, zuzentzaile eta irakurle kualifikatuen laguntza.

Hilabete bada zuk euskaratutako bigarren liburua kalean denetik. Gустura geratu al zara emaitzarekin?

Lanean ari nintzanean «idatzi mesede oheburuan: itzulpenak ez dira amaitzen; abandonatu egiten dira» esan zituen editoreak. Lana bukatutzat eman nuenean lasaitua hartu nuen. Baina testua formatu elektronikoa beharrezkoan liburu formatuan hartu eta, denbora-nahiz espazio-tarte horrietatik, gauzatxoak eta gauzak ikusten dituzu eta belarriak gorritzen zaizkizu. Hobe, beraz, zure itzulpena apaletan uztea beste liburuen artean, eta orduan bai, orduan gustura geratzen zara. Argitaletxeak atera duen edizioarekin gainera, are gehiago.

Nola sortu zen lana itzultzeko aukera?

Txalaparta argitaletxeak egindako enkargua izan zen.

Ezagutzen ez duenarentzat, aurkeztu liburua.

Ray Bradbury idazle estatubatuarra 1953an idatzitako nobela distopiko bat da. Generoaren gai-

lurtzat Adous Huxleyren *Bai mundu berria* (Xabier Amurizak itzuli eta Elkarrek berrargitaratua) eta George Orwellen *1984* (Oskar Aranek itzuli eta Txalapartak argitaratua) jo izan dira, baina *Fahrenheit 451* ere, maila apalagoan, eragin handia izan du mendebaldeko kulturaren zein literaturaren. Paperak fahrenheit eskalan 451 gradutan hartzen omen du su eta erretzen omen da. Hortik dator izenburua, nahiz eta gero egiaztatzen den zientifikoki okerra dela datua. Irakurtzea debekaturik dagoen eta suhiltzaileek suak itzaltzeaz baino liburuak erretzeaz arduratzen diren gizarte bat irudikatzen du. Gaurkotatunik ez dute galdu nobela honean lantzen diren gaiak. Hor agertzen zaizkigu zentsura, jakintzaren deuseztapena horrela gizon-emakumeen berdintasuna

«Zuzentzaile eta irakurle kualifikatuen bat ondoan edukitzea oso beharrezkoa da»

eta zorientasuna lortzen delakoa, telebistak, iragarkiek, jolasparkeek leloturiko gizartea, federearen galera...

Behin liburua eskuetan izanda, nola antolatu zenuen lana? Zein baliabide erabili zenituen?

Lehenengo gaztelarazko eta alemanezko bertsiotzaileak lortu nituen. Itzultzen joan ahala autorearen,



I. GOROSTAZU

liburua idatzi zuen garaia eta liburuaren beraren inguruko informazioa bildu nuen. Klasiko bat izanik, oso ondo aztertuta dago. Autoreak, adibidez, literatura erreferentzia asko egiten ditu (Shakespearearen aipuak, Matthew Arnolden *Doverreko hondartza* poema ezaguna, *Gulliverren Bidaiak*eko lerro batzuk, Bibliako pasarteak, William Blakeneko *Tigrea, tigrea* poema, beste poeta ingeles batzuen aipuak...) eta, jada eskura nuen informazio guztiari esker, erraz detektatu ahal izan nituen. Susaren webguneko Euskarari Ekarrak atalak laguntza handia eman zidan erreferentzia horietatik euskarara itzultitakoak aurkitzeko orduan. Bestalde, itzulpengintzan ohikoak diren tresna elektronikoen erabili nituen: Euskalbar aplikazioa, Ereduzko Prosa Gaur Corpora, Orotarikoak eta abar. Eta, azkenik, ezinbestekoa da edozein itzulpen-lanetan eta bereziki literatura itzulpenetan, bakarrik egiten duzun lan horretaz gain, zuzentzaile eta irakurle kualifikatuen bat edo beste ondoan izatea. Nire kasuan, Amaia Apalauzak lan izugarria egin zuen, eta Arkaitz Goikoetxeak eta argitaletxeok ere asko lagundu didate.

Euskaratu zenuen 'Suminez' lehen liburuarekin alderatuta, erazagoa egin al zaizu bigarrena?

Bigarrenarekin lehen aipatutako dokumentazio-lana azkarrago egin nuen eta, beste hizkuntza batzuetara egindako bi itzulpen es-

kuartean nituen, beti ere tentuz baina ziurrago ibili nintzen, beste itzultzaile batzuek jatorrizkoa modu batera edo bestera deskodifikatuta baitzuten. Gero, noski, idazle bakoitzaren estiloa eta testuaren efektu literarioa dago eta hori jasotzea da zailena, seguru asko. Autoreari zein irakurlea-

«Jatorrizko testuen efektu literarioa lortzen ez duten testu lauak sortzen ditugu»

ri egiten diozun iruzurra estaltzeko ematen ditu lanak; behin eta berriz galdetzen diozu zure buruari amaierako testuan ari dena zenbateraino ote den autorearen ahotsa eta zenbateraino zurea. **Zein egoeratan dago euskal itzulpengintza?**

Argi dago aurrerapen handiak egin direla, eta, oro har, gaur egun egiten diren itzulpenak hobeak direla orain dela hamarkada bat egiten zirenak baino. Hala ere, luzerako emango lukeen eztabaida da. Balorazio hori egiterakoan, faktore asko hartu behar dira kontuan, eta horietako bat hizkuntza bera eta egoera soziolinguistikoa dira. Euskara estandarra badugun arren, gabezia handiak ditugu hizkuntza erregistroei dagokionez. Hizkuntza erreferentziak ere murriztegiak ditugu, frantsesarenak eta batez ere gaztelararenak. Testu homogeneoegiak, lauegiak sortzen ditugu, askotan jatorrizko

testuaren efektu literarioa lortzen ez dutenak. Hizkuntza gutxitua izanik, hizkuntza idatzia, literatura hizkuntza barne, sortzen doa oraindik. Lan horretan ari dira euskal idazleak eta itzultzaileak pixkanaka. Dena den, eten bat badago oraindik bi profesional horien artean, gero eta txikiagoa baina eten bat. Euskal idazleek irakurtzen dute itzultzaileek egiten dutena? Itzultzaileek badute euskal idazleek sortzen dutenaren berri? Elkarlan hori beharrezkoa da, gero eta testu anitzagoak sortuko baditugu. Bestalde, itzulpen-politika bateratu baten beharra ere badugu. Literatur Unibertsala ekimenaren barruan klasiko asko itzuli dira, baina asko zaharkitua are deskatalogatuak geratu dira. Horietatik ehun 'berreskuratzeko' programa atera dute berriki eta gaitzerdi. Euskal argitaletxeek ere gero eta itzulpen gehiago argitaratzen dituzte, baina ez dut ikusten, bakarren bat kenduta, haien atzean itzulpen-plangintza jakin bati jarraitzen diotenik, eta argi dago argitaletxe bakoitzak bere aldetik ari dela ahal duena egiten.

Literatur lanez aparte, zer beste alor lantzen dituzu zure lanean?

Literatur itzulpenak egiten dituzten itzultzaile gehienak ez dira hortik bizi, eta egunerokoa beste motatako itzulpenak edo beste lan batzuk egiten ateratzen dute, eta lan horiek egiten trebatzen dira gehienak, ni neu barne.

SEGORE ETXE BERRI

SANTA MARINA
Tel.: 943 58 09 76 - Mugikorra 610 460 751

San Martin jaiei hasiera emateko asteartean jaitsiko da Martina Sorgina

Asteartean 20:00etan emango diete hasiera pintxo dastaketarekin. Igandera bitarte jai giroa izango da Amasan

Erredakzioa Amasa

Asteartean hasiko dira San Martin jaiak Amasan. Bertako jaien hasiera Martina Sorginak iragaritzen du eta jai giroa hasteko, 20:00etan jaitsiko da plazara.

Gazteen eguna, egun handia izan ohi da amasarrentzat. Goizen goiz gosariarekin hasten dute eguna. Bazkaria eta afaria ere egiten dituzte. San Martin egunean, herri kirol saioa izango da, bertso-lari eta trikitilariak lagunduta.

Azken urteetan ohikoa izan da Amasako pilotalekuan Pirritx eta Porrotx pailazoak izatea baina aurten huts egingo dute. Beraien



Aurten huts egingo dute Pirritx eta Porrotx pailazoek. E. MAIZ

lekua, Hipo eta Tomax pailazoek beteko dute.

Bertso-saio bikaina antolatuta dute larunbat gauerako. Amaia Agirrerren gidaritzapean, Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi eta Julio Soto bertsolariak izango dira.

Jarraian dantzaldia eta karaoke izango dira.

Eta jaiei amaiera emateko, amasarrek Martina Sorginari agur esaten diete. Hori igandean izango da. Eta urtero bezala, jaiak bukatu eta astebetera, Amasako XVIII. Mendiatioia izango da.

↓ Amasako San Martin Jaiak

AZAROK 9, ASTEARTEA

■ **20:00.** Martina sorginari ongi etorria eta pintxo dastaketa Kultur Etxean.

AZAROK 10, ASTEAZKENA

Gazteen eguna

■ **06:00.** Gazteen gosaria Ongi Etorri tabernan trikitilari eta dultzaineroek alaiturik.

■ **14:00.** Gazteen bazkaria Uxo Toki elkartearen.

■ **16:30.** Soka dantza eta aurrerakua plazan.

■ **Ondoren.** Trikitilarietako erromeria.

■ **21:00.** Gazteen afaria Iturri Goxo jatetxean.

AZAROK 11, OSTEGUNA

San Martin eguna

■ **10:30.** Meza nagusia.

■ **Ondoren.** Herri kirolak, Joseba Otaegi eta Jexux Mari aizkolariaren eta Aimar Irigoien eta J.R. Iruretagoienak, *Izeta* harrijasotzaileen eskutik. Etxeberria eta Lazkano bertsolariak eta trikitilariak alaituko dute saioa.

AZAROK 12, OSTIRALA

■ **17:30.** Hipo eta Tomax pailazoaren emanaldia.

■ **Ondoren.** Txokolate beroa banatuko dute.

■ **20:00.** Amasako XIX. Bakailao lehiaketa frontoian.

■ **23:30.** Dantzaldia Laiotz taldearen eskutik.

AZAROK 13, LARUNBATA

■ **11:00.** Umeen krosa izango da. (6. mailara arteko umeentzat bakarrik).

■ **Ondoren.** Dultzaineroak.

■ **14:00.** Herri bazkaria: txekor jatea.

■ **17:30.** Trikipoteoa.

■ **22:30.** Bertso saioa: Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi eta Julio Soto. Gai jartzailea: Amaia Agirre.

■ **Ondoren.** Dantzaldia Kantuki taldearekin.

■ **Jarraian.** Karaokea.

AZAROK 14, IGANDEA

■ **Meza ondoren.** Zaldi proba.

■ **18:00.** Herri kirolak: Amasarrek zizurkildarren aurka.

■ **Ondoren.** Martina sorginari agurra, XXI. Intxorren aldekoa eta afari-merienda kultur etxeko areto nagusian.

AZAROK 21, IGANDEA

■ **11:00.** Amasako XVIII. Mendiatioia.

'Gipuzkoako hondakinen arazoa' hitzaldia, gaur

Gaur 19:00etan Anoetako Gaztetxean izango da. Gipuzkoako Zero Zaborreko kideek emango dute

Erredakzioa Anoeta

Hiri hondakinen gaia denon ahotan dabilen honetan, *Hondakinen arazoa Gipuzkoan* hitzaldia emango dute Gipuzkoako Zero Zaborreko ordezkariak. Gaztetxeko kideen eskariz antolatua izan da eta gaur 19:00etan Anoetako Gaztetxean bertan izango da.

«Ezinbesteko kaltea ala eredu okerraren ondorioa?» galdera luzatuko dute Gipuzkoako Zero Zaborreko kideek esan dutenez. «Hiri hondakinen arazoa halabarharrez onartu beharreko kaltetzat aurkezten zaigu herritarro. Etsita, egitura erraldoi, garesti eta kutsakorrak onartzea beste irtenbiderik ez daukagula sinetsarazi nahi digute» gaineratu dute GZZekoak.

Hauek, munduan zehar beste-lako kudeaketa eredu batzuk ba-

direla erakutsiko dute. Askoz baliabide apalagoekin, osasuna eta ingurumena aintzat hartzen dituzten kudeaketa ereduak aukera daitezkeela azalduko dute. «Enpresa handiek osatutako lobby indartsuei men egin beharrean, herritarren interesak ardatz hartuta diseinatutako ereduak dira hauek» diote.

Gipuzkoako ereduak

Hemen bertan, Gipuzkoan, eredu horiek eragiten dituzten emaitza onak ikusarazi nahiko dituzte. «Usurbil, Hernani eta Oiartzunen abian da atez ateko bilketa. Debagoiena mankomunitateak bi urtetan herri guztietan atez ateko ezartzeko erabakia hartu du. Udal asko dira aipatutako bidea gertutik segitzen dutenak» gaineratzen dute. Gipuzkoan, etorkizun laburrean, norabide batean edo bestean murgilduko gaituen erabakia hartzea dagoela eta «gure esku dago gauzak aldatzea». Beraz, Anoetako gaztetxetik gonbita luzatzen dute, «aukerarekin paregabea izango dugu tolosaldeko herritarrek eredu berri izan eta iritziak trukatzeko».

Gastronomia eta kulturaz bustitako asteburua

Bihar, arroz-esne txapelketa, gaztainak erretzea eta afaria egingo dituzte Arrabots taldearekin

Erredakzioa Berastegi

Atzo hasi ziren Kultur Asteko ekitaldiekin. Gaur eguraldi ona bada, 16:30ean haurrentzako pista jokoa izango da. 21:30ean *In*

vino fabula ipuin kontaketa berezia. Bihar 17:00etan II. Arroz-esne txapelketa egingo dute eta 18:00etan gaztainak erreko dituzte. Ondoren afari-merienda eta arroz esne-dastaketa egingo dituzte. Sari banaketa ta Arrabots taldearen emanaldia izango dira.

Igandean, 16:00etan haurrentzako antzerkia, eskulan tailerra eta txokolatada izango dira. Eta 19:00etan *Herriko aiton amonen ahotsak eta historiak* ikusteko aukera izango da.

Lehen urteurreneko eskaintza berezia

SHUYANA
LUBRIKANTZA


Eskolapioetako Lorategiak, 3 • IA
TOLOSA • Tel.: 943 67 54 89

Shuyana kosmetiko denda
Korreo kalea 1 • Tel.: 943 67 14 68

Abenduaren 1etik 20ra
%20ko deskontua makillaje eta kosmetikoetan

Era berean, zerbitzu edota produktu bat erostean
3 opari txekeren zozketan sartuko zara.

Lehen saria: 100 €
Bigarren saria: 50 €
Hirugarren saria: 25 €



Gimnasio berria astelehenean erabiltzen hasi ahalko da

Haurreskola berria egiterakoan lekuz aldatu da eta berritasun nabarmenena beirate handi bat duela da

Imanol Garcia Alegia

Haurreskola berria egiten hastekoan, Kultur eta Kirol Etxea handitu egin dute Alegian. Lehen gimnasioa zegoen lekuan ari dira haurreskola eraikitzen eta horren ondoan leku berri bat atondu dute gimnasioarentzat. Azken ukituak ematen ari dira eta datorren astelehenean irekiko dituzte ateak, lanak direla-eta ekainetik itxita egon ostean.

Patxi Renobales Kirol zinegotziak nabarmentzen duenez, leku berriak abantaila nagusi bat izango du: «Aurreko lekua itxia zen eta oraingoak beirate handi bat du. Makinetan kirola egiten ari denak aurrean horma izatea baino ikuspegi zabalagoa du».

Orduetgia eta prezioak

Gimnasioak Kultur Etxearen orduetgia mantenduko du, hau da, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 21:00etara astegunetan eta 10:30etik 13:00etara larunbatetan. Prezioei dagokionez, hileko abonua 14,88 eurokoa da, urtekoa errotatuek 72,55 euro eta errotatuta ez daudenak 95,03 euro ordaindu behar dute eta eguneko sarrera 2,35 eurokoa da.



Beirategi handi bat du gimnasio berriak; kirol makinak eta pisuak erabiltzeko makinak mantentzen dira. I.GARCIA

Behobia-Donostia probarentzat azken entsegua

Ikaztegiatiko XX. Herri Krosa etzi egingo dute, Donostiako lasterketa baino astebete lehenago

I. Garcia Ikaztegieta

Ikaztegiatiko Herri Krosak bere hogeigarren edizioa izango du etzi. Orain arte Behobia-Donostia lasterketaren ondorengo igandean antolatzen zuten, baina aur-

tengo egutegiak behartu die antolatzaileei Behobia baino astebete lehenago egitea. Korrikalariak Ikaztegiatiko krosa erabili dezakete Behobiaren azken proba bezala, baina horrek parte-hartzaileen kopuruan zenbaterainoko aldaketa ekarriko duen aurreratzea zaila ikusten dute antolatzailetatik.

Orain arteko proba guztietan parte hartu duen korrikalari bakarra herritar bat da, Joxe Mari Garmendia. «Hasieratik parte hartzen dut eta gustuko dut, he-

rriari zehar korrika egiten da. Urte guztian zehar kirola egiten dut eta orain arte zorrea izan dut», azaltzen du Garmendiak. Ez du Behobia-Donostia lasterketa egingo, «horrelako masifikazioak ez zaizkit gustatzen», eta urtean zehar zenbait mendi lasterketan parte hartzen du, bizikletan ere aritzen da eta neguan iraupen-eskia egiten du. «Kirol mundu beti gustatu izan zait eta hor jarraitzen dugu», gaineratzen du.

Krosean parte hartzeaz gain, antolatzaile lanetan ere aritzen

da. Herrigintza elkarteak antolatzen du krosa eta 30 lagun inguru aritzen dira lanean egunean bertan. Izenak hartu eta lasterketa bideratzeaz gain, probaren ondorengo hamaiketako ere prestatzen dute.

Hiru itzuli herrian zehar

Lasterketa 11:00etan hasiko da, 10 kilometro ditu eta guztira hiru itzuli ematen dira herrian zehar. Kilometro bakoitza markatuta egoten da. Izena www.herrikrosa.com helbidean eman daiteke,

10 euro ordainduz, edo proba hasi aurretik, 09:00etatik 10:15era, 15 euro ordainduz.

Asteazkena arte dagoeneko 60 lagunek eman zuten izena. Antolatzaileek 300 kamiseta ditu banatzeko, eta dortsalak jaso ahala emango dizkiete korrikalariak. 16 urte beteak izan behar ditu parte hartzeko lasterketan. Krosa hasi aurretik, 10:45ean herriko hauterren txanda izaten da. Kilometro bat egiten dute korrikan, ez da sailkapenik izaten eta bukaeran oparixko bat ematen zaie.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Eskualdeko ordezkariak izango dira Euskal Kantu Txapelketan

Alegiako eta Villabona-Zizurkilgo ordezkariak izango dira lehiaketan; lehen saioa bihar bertan izango da Azkoitian

Erredakzioa

Bihar bertan, hilak 6, hasiko da Gipuzkoako Kantu Txapelketa. Hamalagarren edizio honetan parte hartzen duten ia gehienak lehen aldiz ariko dira txapelketan. «Harrobi berria abian dugula esan genezake» diote antolatzaileek zentzu honetan. Izan ere, 27 parte-hartzaileetatik 22k hartuko dute parte lehen aldiz.

Parte-hartzaileek 15 eta 21 urte bitartean dituzte, hiruk izan ezik. Guztira 35 abesti aurkeztuko dituzte, horietatik 15 sortutako lan berriak izango dira eta besteak bertsioak, besteak beste, Ken 7, Eztakit, Esne Beltza, Eskixu, Xabier Lete eta Zea Maysen abestiak kantatuko dituztelarik.

Guztira hortaz, bakarlariak eta taldeak kontutan hartuta, 46 abeslari eta 40 musikari izango dira Gipuzkoako Kantu Txapelketan eta 35 abesti entzun ahal izango dira.

Eskualdeari dagokionez bakarlarrietan ordezkari bakarra izan-

go da, Alegiako Olatz Zubeldia hain zuzen. Bikoteetan, aldiz, Villabona-Zizurkilgo Ainhoa Barandiaran eta Aiora Irazustak eta Alegiako Nora Salvador eta Marta Oleak hartuko dute parte. Taldeen mailan Alegiako Keiran eta Olatz Xubel taldeak ariko dira.

Aipatu moduan lehen kanporaketa bihar bertan izango da Azkoitiko Baztartxo antzokian 18:00etatik aurrera. Lehen saio honetan, gainera, Azpeitiko Arantzeta taldearen bi kantu ere entzun ahal izango dira. Datoren kanporaketa hilaren 14an izango da Urretxu-Zumarragako Labeaga antzokian 18:00etan.

Finala, aldiz, Donostiako Antzoki Zaharrea izango da hilaren 21ean 18:00etatik aurrera. Fi-

nalean *Kantagintzaren uhin berria 2010* diska ere aurkeztuko dute. Euskal Kantuzaleen Elkarrekin 2008an abiarazitako egitasmoaren ondorio da diska.

Txapelketan aurkeztutako sorkuntza lan guztiak eta saridunekin diskoa grabatzen dute orduak. Aurtengoan 15 kantuz osatutako diska kaleratuko dute eta bertan Asteasuko Naroa Geresak, Tolosako Garazi Egigurenek, Ibarak Oihane Sarasolak eta Villabonako Izaro-Aiora-Garazi taldeak hartzen dute parte. Disrako finalaren egunean bertan erosi ahal izango da 10 euroren truke, nahiz eta ondoren dendetan ere eskuratu ahal izango den, edota www.kantuzale.net webgunean.



Izaro, Aiora eta Garazi irabazi zuten taldekoak. A. BELAUNZARAN

Eguberrietako postalak atera ditu Mizio Taldeak

Hirugarren urtez atera dituzte Ekuador, Honduras eta Indiako proiektuetarako dirua biltzeko

Erredakzioa Ibarra

Ibaratik Mizio Taldeak Eguberrietako postalak atera ditu hirugarren urtez.

1997. urtetik hainbat ekintza burutzen dituzte garapen bidean dauden hiru herrialdeetan eta bertan dituzten proiektuak bultzatzeko baliatuko dute postalekin jasotzen duten dirua. Lankidetzan ondorengo herrialdeetara zabalitzen da: Santa Rosa eta Baba (Ekuador), Suyapa (Honduras) eta Gujarat (India).

Alor oso desberdinetako egitasmoak

Proiektu hauek alor oso ezberdinetakoak dira, hala nola, emakumearen promozioa bultzatzen dute, jangelak egiten dituzte, erabilera anitzeko gelak eta etxebizitzaren eraikuntza bultzatzen dute, botiken erosketa eta banaketa,

haurren eta helduen alfabetazioa eta hezkuntza...

«Batez ere haurren eta emakumeen egoera hobetzera zuzendutako proiektuak ditugu esku artean, hauek baitira herrialde azpi-garatueta kaltetuen dauden talde sozialak», argitu dute Ibarak gobernu kanpoko erakundearen kideek.

Artistek egindako postalak

Postalak 13 x 15 zm neurria dute eta guztiak taldearekin lan egiten duten artistek eginak dira. Postal bakoitzak euro bat balio du eta enpresako testua eta anagramak inprimatzeko aukera ere eskaintzen dute.

Hauek dira salneurriak: Kolore bakarrea egiten badira 0-500 postal artean 35 euro eta 500 postaletik gora 50 euro; bi koloretan egiten badira, aldiz, 0-500 postal bitartean 65 euro eta 500etik gora 85 euro.

Eguberrietako postalak erosteko edota Ibaratik Mizio Taldearekin lan egiteko 659 486 511 telefono zenbakira deitu behar da edo eiderepelde@gmail.com helbidera mezu bat bidali.

Tolosaldeko hitza. iragarkilaburrak.com

Astuzien erretzikatzea 75000 euro jasotzeko iragarkia salki argitaratuko da. IRAGARKIAK JARTZEKO www.tolosaldeko-hitza.iragarkilaburrak.com / 943-655695/4646363636

Hizketan

ETXEBIZITZAK
Eldiegolan. Etxe berrak...
LAN ESKARER
PERTSONAK ZABINDU

LAN ESKARER

Alegia. Astezuzen eta goizez lan egin nahiko...
Tolosa. Lehen hezkuntza irakasle...
Tolosa. Tolosako lehiaketa...

Villabona. Iratze...
Tolosa. Publicitate eta...
LANESKANTZAK

LAZKAO. 3 logela eta...
AZKEN PISUAK SALGAI
Zarautz. Ibarren...
Zarautz. Vista Alegren...

KANPORAK GUREAN
Aldizkaria
GANERAKIDAK

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA
943-16 20 48
www.ikolanaldi.com

LAZKAO
AZKEN PISUAK SALGAI
www.lamylazkao.com

SALBIDE
Higitzinen zerbitzuak
www.inmosalbide.com

Aia. Erakuntza berria...
Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza...
Aizarnazabal. ALKIBRA ONA...
Gataria. Herriaren...
Zestoa. Arros behe...
Zestoa. Erretzikatzea...
Zarautz. Ibarren...
Zarautz. Vista Alegren...

Etxebila
943-446166
www.etxebila.net



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Ibarra.** III. Galtzakomik komiki lehiaketa euskaraz. Gazte eta helduentzat, gai librea. Lanak Galtzaundi euskara taldea entregatu behar dira. Antolatzailea: Galtzaundi Euskara Taldea eta Ibarra Udalak.
- **Tolosa.** Zezen plaza auzoko bizilagunek urtero bezala afaria egingo dute, bihar. Izen-emaitea, ohiko lekuetan.
- **Villabona.** Azaroaren 27an Euskal Herriko lehen antzerkizale eguna antolatu nahi dute. Villabonako Euskal Herrian Euskaraz horretarako lan taldea osatu nahian dabil eta dei egiten diete beraiekin parte hartu nahi duten guztiei.

ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Alegiako Jubilatuen tabernan Itziar artista irundararren lore lehorren erakusketa.
- **Tolosa.** *Irukiak* erakusketa GKo Galerian ikusgai.
- **Tolosa.** Ignacio Elizaranen erakusketa Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** Indonesiako Txotxongiloen erakusketa Topic-en.
- **Tolosa.** Jon Balentziaga eta

Enrike Zeberio pertsona gorren erakusketa Fronton kafetegian.

- **Tolosa.** *Ertza* erakusketa GKo Galerian, bihar arte ikusgai.

JAIALDIK

- **Tolosa.** IX. Nazioarteko Trikitixa Jaialdia, 22:00etan Leidor aretoan.

MUSIKA

- **Oresa.** Patxi Saizen kantaldia 21:30ean, Kultur Hamabostaldiaren barruan.

ZINEMA

- **Tolosa.** Leidor aretoan, bihar: *Machete*, 19:30ean. Etzi, igandea: *Winkiren zaldia* haurrentzako filma (euskaraz) 17:00etan, *Bright star* 19:30ean eta 22:30ean *Machete*. Astelehenean 20:30ean, *Bright star*.
- **Villabona.** Gurean, *Wall Street*, bihar 19:30ean eta 22:15ean, etzi, igandean, 19:30ean, eta astelehenean, 21:30ean.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak!

Martina Iturbe (Bedaio). Astelehenean 96 urte. Bihar jai, babarrunak aletu gabe. Ondo ospatu, ama, amona eta birramona. Muxu bana.



Urte askoan Hodei!

Hodei Galarraga Agirre. Bihar 4 urte. Muxu handi handi bat familia guztiaren partetik, eta bereziki aitaxoren partetik. Ondo ondo pasa!



Zorionak!

Maria Mujika (Anoeta). Gaur urteak. Zorionak etxekoan eta Migelen partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak
Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.
agurrak

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Lekunberri.** Mendia, M.L. Aralar kalea, 25. 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaratza auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Lekunberri.** Mendia, M.L. Aralar kalea, 25. 112.

ETZI

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Lekunberri.** Mendia, M.L. Aralar kalea, 25. 112.

ASTELEHENA

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarrren, 52. 112.

**URREA
EROSTEN
DUT**

Momentuko ordainketa eskura

Aldatu ezazu urrea euroen truke

Edozein eskaintza hobetzen dugu

TASAZIORIK ONENA !!

Rondilla kalea 25, behea